

## HAREN BARATZEAN

Esku bat etorri zen nire bila,  
eskutik hartuz eraman ninduen;  
amak zioen "hala izan dadila".  
Ustekabeen Harekin nengoen  
baratze liluragarri batean,  
ni bezalako mutiko artean.

Baratzeak landu beharra zuen:  
ikasketak, errezoak, jolasak;  
haziz gindoazen gu bitartean,  
diziplinak eta denbora pasak,  
amets eginez etorkizunean.  
Hura zebilen gurekin denean.

Baina ni ez nintzen hartaz ohartzen  
bizimodu haren zentzu sakonaz,  
eskutik ninderaman Maisu onaz;  
nik ez nekien noranzkoa hartzen.  
Ez, ez nuen ulertzen nik tutik,  
baina ongi nindoan haren eskutik.

Ni eta lagunak oharkabeen,  
aurrera gindoazen bai poliki,  
ikasketa eta jolas artean,

orduko korronteari jarraiki.  
 Dei egin zigun Maisu berbera zen  
 guztia ari zena bideratzen.

Haurra gazte bihurtu Alesbesen...  
 Lehenik tristurak hartu ninduen:  
 gorri eta hits ageri zen lurra  
 jantzi berdea erabat kendua  
 eta dolu-jantzi az apaindua.  
 Bai serio egin zigula agurra!

Baina hark bazuen bere lilura,  
 hodeiertz eta bista zabal hura,  
 gauez zeru-ganga mugagabea,  
 izarratu eta esne-bidea,  
 Aragoi ibaia, Peñalen haitza,  
 haitzaren biran ibilbide gaitza.

Gorputza zailtzeko aukera ona,  
 Bardeetako lurzoru higatua;  
 haizeak txistuka zizelkatua,  
 haren atzaparretan moldatua.  
 Bada leku bat, Belen deritzona,  
 labirinto antzera osatua.

Hainbat futbol partidu "Alesbesen",  
 "Guindera" deritzona ere han zen,  
 Aragoi ibaia bertan zuela;  
 harantz izan ohi zen gure joera.  
 Hango zalaparta, norgehiagoka!  
 Gazte-odola genuen borborka.

Etetik laster San Pedro ermita,  
han izaten zen hotzarekin zita;  
hainbatetan joan ohi ginen hara,  
jelaren esku izoztuetara.  
Hotza eta beroa aldioro:  
hotzean hotz eta beroan bero!

Maiatza, Andre Mariaren hila;  
bai datorkidala oroipen pila!  
Maiatzeko lore, kanta, jardunak,  
bihotzetiko errezo-urrukak  
erle-burrundaraz batera deika;  
Hor naturaren berezko lirika.

Parkea, oasi, igerilekua,  
mahats-mordoak zintzilik gainean,  
basamortuko atsedengunean.  
Barne-desirak azalertzeko  
eta gutziak kudeatzeko  
egoki datorren zirrikitua.

Eta bat amaitzear genuen;  
haren eskuak gidatzen gintuen  
lur arretik berderanzko bidean;  
Ama jantziak prest beste aldean.  
Amets zaharrak bete, berriak hasi,  
fraide-bizitza behar zen ikasi.

Horretan ginen, bai, maisua lagun,  
presentzia arrunt eta ezagun;  
haren begi zorrotza eta zaintza  
ezin genuen baztertu gugandik.

Gazteak zizelkatzeko artzaintza  
zer zen hantxe ikasiko nuen nik.

Halako batean beste amets bat  
betea; onartuak ginen behintzat.  
Egun handia: profesa eguna;  
"ecce quam bonun" kanta ezaguna.  
Ondoren besarkada bat elkarri  
Anai maitasunaren ezaugarri.

Hemen oasi bat berde-berdea,  
mendi artean poliki gordea.  
Xisterako pilota hotsa ozen,  
auzotik guganaino iristen zen.  
Albiste batek hartu zuen sona:  
*Aita Santu berri Roncali ona.*

Gaur nagoen lekuan urtebete,  
geroan segidarik izango ote?  
Zapola genuen goitik begira,  
gure beheko eszenatokira.  
Hau bai oasi, arnasa hartzea!  
baina fin landuz geure baratzea.

Laster baratzea bete zen lorez,  
askotariko usain eta kolorez;  
filosofian ondorengo urratsa,  
ahalmenak lantzen ibilbide latza;  
helmugarantz joz, teologia,  
ikasketen azken katebegia.

Behingo batean gotzainaren hitza  
eta Espirituaren ihintza,  
haren esku ezartzeaz batera:  
dei gozoa bihotzaren atera.  
Berrogeita hamar urte joan dira;  
harrezkero munduak zenbat bira...!

“Magnificat” kantatuz amaiera,  
sartu baikaitu bere baratzera.  
Duela berrogeita hamar urte zen,  
martxoaren hamabian, hain zuzen.  
Hunkitzen naiz gogoratu orduko;  
orain era berean amaituko.

*Luis Baraiazarra Txertudi*

2016-03-12